

20%

Informazio-gida

6 HILABETE 6 ERRONKA



2030 garapen jasangarriaren helburuak



JUSTIFIKAZIOA

Ekoizten eta kontsumitzen dugun guztiak eragin positiboa edo negatiboa du ekonomian, ingurumenean eta gizarte-garapenean.

GJHen helburuetan oinarrituta, pertsona bakoitzak baliabide naturalak erosteko eta erabiltzeko orduan gogoetatsu jardutea da kontua, gure egungo garapen-ereduaren eraginari aurre egiten lagunduko duten eta kontsumo- eta ekoizpen-eredu jasangarriago baterantz eboluzionatuko duten banakako neurriak aplikatuz.

HELBURUAK

- GJHen helburuak kontsumo arduratsuaren ikuspegitik lortzearen garrantziaz jabetzea.
- Gure hondakinak osatzen dituzten materialak, horien osaera eta ekonomia zirkularrerako berreskuratzeko aukerak ezagutzea eta bereiztea.
- Ura eta energia zentzuz kontsumitzearen garrantziaz jabetzea.
- Kontsumo-erabakiek bizi garen planetaren iraunkortasun handiagoa lortzen lagun dezaketela kontzientziatzea, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik.
- Garraio publikoaren eta gutxien kutsatzen duten garraioen erabilera sustatzea, baita horiek erabiltzean ditugun eskubideak ere.
- Elikagai batek ekoizten denetik kontsumitzen den arte egiten duen ibilbidea ezagutzea, horrek osasunean, ingurumenean, ekonomian eta gizartean dituen ondorioak kontuan hartuta.

EDUKIAK

- Uraren kutsadura murriztea eta baliabide hidrikoen kudeaketa eraginkorra.
- Efizientzia energetikoa eta energia berriztagarrien aldeko apustua.
- Ekoizpen eta kontsumo eredu iraunkorren aldeko apustua.
- Produkzio-kateko agenteak eta merkataritza tradizionalaren alternatibak.
- Klima-aldaketa arintzeko hezkuntza eta sentsibilizazioa.
- Mugikortasun jasangarriaren ereduak.
- Erosketa berdea. Ontzi motak eta berreskuratzeko aukerak.

ARIKETAK

HASIERAKO FASEA (aurretiko jarduera)

- Gaur egun bizi dugun egoerari buruzko hausnarketa.

GARAPEN FASEA (saioa)

- 1. ERRONKA: 13. GJH eta 14. GJHak.
 - Murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea. Ekonomia zirkularra.
- 2. ERRONKA: 6. GJH eta 7. GJHak.
 - Baliabide naturalen erabilera egokia. Ura eta energia.
- 3. ERRONKA: 15. GJH.
 - Lehorreko ekosistemak.
- 4. ERRONKA: 11. GJH.
 - Mugikortasun jasangarria.
- 5. ERRONKA: 2. GJH.
 - Elikadura iraunkorra eta alferrik galtzea.
- 6. ERRONKA: 8. GJH eta 12. GJHak.
 - Kontsumo arduratsua.

APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (ondorengo jarduera)

- Ikasitakoa aplikatuz.

OINARRIZKO KOMPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

DISZIPLINAKOAK

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia.
- Zientziarako kompetentzia.
- Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.
- Arterako kompetentzia.

ZEHARKAKOAK

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
- Elkarbizitzarako kompetentzia.
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
- Izaten ikasteko kompetentzia.

METODOLOGIA

- Gamifikazioa.
- Thinking based learning.
- Lankidetzako lana.
- Critical thinking.

ANTOLAKUNTZA

IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
Ordenagailua, proiektagailua eta pantaila. Tabletak. Interneterako sarbidea.	Erronka bakoitzak bi zati edo saio izango ditu. Lehenengo zatia ikasgelan egingo da, modu autonomoan, eta bigarren zatia, berriz, Kontsumobideko prestatzailearen dinamizazioaren bidez. Erronka bakoitza amaitzean, lan egindako zatia nabigazio-koaderno batean beteko da.	<ul style="list-style-type: none">• Aurretiko jarduera: ordu 1• Erronka bakoitza: 2 h (1 h lan autonomoan eta 1 h lan dinamizatuan)• Bitakora-koadernoak: 2 ordu• 15 ordu

EBALUAKETA

IRAKASLEAK

Ebaluazio inkesta.

IKASLEAK

Ebaluazio inkesta.